

FUNTZESKO SOZietATEAK

WasteHero proiektuak behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da bazkide eta hornitzaile sare sendo eta ondo definitua izatea. Funtsezko sozietate hauek negozio-eredua martxan jartzea eta epe luzera mantentzea ahalbidetzen dute, baliabide espezializatuak eskainiz, arriskuak murriztuz eta proiektuaren eraginkortasuna optimizatuz.

Lehenik eta behin, teknologia-bazkideak funtsezkoak dira. Horien artean daude sentsoak, kamera eta IoT gailuen hornitzaileak, edukiontzi adimendunen funtzionamendu egokia bermatzen dutenak. Bazkide hauek beharrezkoak dira kalitatezko hardwarea eskuratzeko eta sistemaren fidagarritasuna ziurtatzeko.

Bigarrenik, software eta adimen artifizialeko bazkideak daude. Haien rola da hondakinen identifikazioa ahalbidetzen duten algoritmoak garatzea, datuen kudeaketa egitea eta aplikazio digitala mantentzea. Bazkide hauek gabe, WasteHero-k ez luke bere balio-proposamen nagusia eskaini ahal izango.

Hirugarrenik, logistika eta instalazio enpresak dira funtsezko eragileak. Haien arduratzen dira edukiontzien banaketaz, instalazioaz eta martxan jartzeaz, bezeroari produktu erabat funtzionala entregatuz. Horrek prozesuak optimizatzen ditu eta denbora-kostuak murrizten ditu.

Gainera, administrazio publikoak eta udal erakundeak bazkide estrategikoak dira. Haien laguntzarekin proiektua espazio publikoetan ezarri daiteke, eta ingurumen-politikekin lerrokatuta garatu. Era berean, tokiko enpresa eta merkatariekin egindako itunek gamifikazio-sistemaren sariak posible egiten dituzte.

Azkenik, mantentze eta laguntza teknikoko hornitzaileek sistemaren jarraitutasuna eta kalitatea bermatzen dute.